



Langabetuen lan aukerak areagotzeko ikastaroak

*Cursos formativos para promover
la inserción laboral*

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Buru belarri lanean enplegua sustatzeko
- Hobekuntzak txakurrentzako parkean
- Udal webgune berria abian
- Langabetuen lan aukerak areagotzeko formakuntza ikastaroak

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 → Martxoak 8
- Kirola praktikatzeko gunek berria
- VII. Beasaingo herri lasterketa
- Beasaingo XXVI. aurreku eta doinu zahar txapelketa
- VI. Arriarango mendi lasterketa
- "Beasain Txartela" Visa Txartelaren aurkezpena

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 → Igartza Musika Bekaren irabazleen kontzertua apirilaren 2an
- Kempo arte martzialaren 35. urteurrena Beasainen

BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA

GUTUNA



**Aitor
Aldasoro**

Beasaingo alkatea

BURU BELARRI LANEAN ENPLEGUA SUSTATZEKO ETA AUKERA BERRIAK ESKAINTZEKO

Hasiera hasieratik gure ahalegin eta indarrak tokiko ekonomia sustatzera bideratu ditugu, guretzat lehentasunezkoa baita enplegua sustatzea, bereziki, langabezian dauden herritarrei irtenbide eta aukera berriak eskaintzeko.

Ekonomiaren sustapenak ongizatea dakar eta enpleguak pertsona duintzen du. Pertsonak eta beren ongizatea izanik guretzat garrantzitsuena, ezinbestean, lana sustatuko duten neurriak landu eta hartu behar ditugu.

Helburu horrekin, joan den urtean, Anezka zerbitzu enpresen gune berria martxan jarri genuen. Era berean, Goiekirekin elkarlanean eta enplegu planaren baitan formakuntza ikastaroak eskaini genituen eta ditugu aurten ere, baina horiek, bereziki, ikasketak dituzten pertsonen zuzenduak daude. Horregatik, ezinbestekotzat jo dugu alor ezberdinak lantzean, oraingo honetan, ikasketarik ez duten pertsonen aukera berriak eskaintzeko eta beren lan munduratzeko errazteko.

Nuevas oportunidades para las personas desempleadas

Promover la economía y el empleo de Beasain ha sido y sigue siendo nuestro principal cometido porque la promoción económica es sinónimo de bienestar y el trabajo dignifica a la persona. Por tanto, intentar ofrecer nuevas oportunidades de empleo es nuestra prioridad.

Por ello, el año pasado inauguramos la incubadora de empresas Anezka y junto a Goieki, ofrecimos y seguimos ofreciendo cursos formativos. Estas iniciativas están dirigidas, principalmente, a gente con estudios, por ello, hemos creído necesario buscar nuevas soluciones y alternativas para aquellas personas desempleadas que no cuentan con estudios. Así las cosas, los nuevos cursos formativos dotarán a las personas de conocimientos que pueden ser aplicados en ámbitos concretos para mejorar su inserción laboral.

HOBKUNTZAK TXAKURRENTZAKO PARKEAN



Ezkiaga auzoan txakurrentzako parkea martxan jarri zenetik hainbat bileran egin ditu Udalak auzotar zein txakur jabeekin eremu berriaren harrera eta erabilerari jarraipen estua egiteko. Azaldu dutenez, guztiak gustura daude parke berriarekin, jabeek zenbait hobekuntza eskatu dituzte eta eskari horiei erantzunaz, poltsa-euskarriak ezarri dira, argiteria hobetu da eta sarrera egokitu da euria egiten duen egunetan lokaztu ez dadin.

Hemendik gutxira, Udalak, txakur jabeen zuzendutako sentiberatze kanpaina abiatuko du, besteak beste, animaliak lotuta eraman eta gorotzak jaso ditzaten sustatzeko. Aurretik aipatutakoak betetzen ez badira Udalak isunak ezartzeari ekingo dio.

“El Ayuntamiento ha realizado mejoras en el parque para perros de Ezkiaga en respuesta a las peticiones recogidas en las reuniones que han mantenido los representantes municipales con los vecinos y vecinas del barrio y los dueños y las dueñas de los perros tras la puesta en marcha del parque. Se han instalado dispensadores, mejorado la iluminación y adecuado el acceso”.

UDAL WEBGUNE BERRIA ABIAN





IKASKETARIK EZ DUTEN LANGABETUEN LAN AUKERAK AREAGOTZEKO FORMAKUNTZA IKASTARO BERRIAK



Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL

areagotzeko, Ikolan enpresarekin elkarlanean, ikasketarik ez duten langabetuei zuzendutako formakuntza ikastaro berriak eskainiko ditu Udalak.

Formakuntza ikastaroak enpresen eskariei lotuta eta lan leerro ezberdinetan banatuta daude: orgalari-lanak, errepide-lanak, produktu fitosanitarioen aplikatzailea izateko ikastaroa edota lan arriskuen prebentziorako oinarizko formakuntza. Beasaingo langabetuetatik 246 gizonezkoak dira eta 368 emakumezkoak, honi erreparatuta, emakumeei zuzendutako formakuntza ikastaro bereziak ere eskainiko dira.

Ikastaroek iraupen ezberdina izango dute eta helburu nagusia da pertsonak lan-esparru jakin batzuetan trebatzea ondoren horietan lan egiteko aukera izan dezaten.

Udal gobernuak hasiera-hasieratik lehenetsi du enplegu sustapena lanak pertsonak duintzen eta burujabe egiten dituelako. Horregatik, langabeziaren aurrean neurriak hartu nahi izan ditu Udalak, langabezia datuen atzean pertsonak daudelako. Hori dela eta, lanik ez duten beasaindarren egoera hobetu eta beren lan aukerak

Nuevos cursos de formación para promover la inserción laboral de las personas en situación de desempleo

La promoción del empleo sigue siendo una de las principales prioridades para este equipo de gobierno. Actualmente en Beasain hay 618 personas desempleadas, de las cuales la mayoría son mujeres mayores de 45, y no cuentan con estudios de Enseñanza Secundaria Obligatoria. Con el objeto de ofrecer nuevas oportunidades a todas aquellas personas desempleadas sin estudios, el Ayuntamiento, en colaboración con Ikolan, ofrecerá nuevos cursos formativos acordes a las demandas de las empresas para dotar a las personas de las competencias y perfiles requeridos para un mejor posicionamiento en la búsqueda de empleo.

Mediante estos cursos de formación el Ayuntamiento pretende dotar a las personas desempleadas del perfil solicitado por las empresas para poder ofrecerles nuevas alternativas y oportunidades e incrementar de esta manera sus posibilidades de inserción laboral.

EN MARCHA LA NUEVA WEB MUNICIPAL

Se ha renovado la web municipal con el objeto de hacerla más accesible, intuitiva, dinámica e interesante para la ciudadanía. Este nuevo portal que ya está en marcha y cuenta con una estructura y un diseño claro, atractivo e intuitivo, acercará la información municipal a las y los beasaindarras y permitirá realizar diversos trámites.

www.beasain.eus

www.beasain.eus

Egitura eta diseinu argi eta erabilerraza duen udal webgune berria jada martxan da, herritarrekin harremanetan jartzeko eta informazioa modu eraginkorrean jasotzeko helburuarekin.

MARTXOAN BEASAINEN



Martxoak 8aren inguruko ekimenen aurkezpena



Dioni López eta Ilu Valverderi omenaldia



Emakume militanteen rola hitzaldiaren aurkezpena

MARTXOAK 8 8 DE MARZO BEASAINEN



M-Lehiaketaren sari ematea



M-Lehiaketaren baitan hitzaldia

Kirola praktikatzeko Kalistenia gune berria



VII. Beasaingo herri lasterketa krosa



argazkia: lasterketak.eus



argazkia: lasterketak.eus

Beasaingo XXVI. auresku eta doinu zahar txapelketa



OLATZ AZKUE eta MIKEL ESNAOLA



ARITZ MAIZA, IKER BELINTXON eta GAIZKA URANGA



IZARO TELLETXEA, NAROA OTXOA eta ELENE ZEBERIO

VI. Arriarango mendi lasterketa



argazkia: lasterketak.eus



argazkia: lasterketak.eus

Visa Txartelaren aurkezpena - Beasain txartela



IGARTZA MUSIKA BEKAREN IRABAZLEEN
KONTZERTUA APIRILAREN 2AN

Musika sustatzeko helburuarekin Igartza Musika Beka sortu zuen Beasaingo Udalak 2016an. Musikenerekin elkarlanean martxan jarritako legealdi osorako egitasmoa izanik, urtean 2 beka emango dira, bata Goi Mailako titulazioaren azken urtea egiten ari den ikasle batentzat eta bestea, masterra egiten ari den beste ikasle batentzat, goi mailako musika hezkuntza sustatu eta hedatzea lortzeko.

Bekak jendaurrean egindako kontzertu baten ondoren banatzen dira eta irabazleek, beranduago, doako kontzertu publikoa emango dute. Azaroko audizioetan Yana Kucheroва biola jotzaileak eta Cesareo Muñoz biolontxelo jotzaileak irabazi zituzten bekak. Biek beraz kontzertua emango dute apirilaren 2an, arratsaldeko 19:00etan Igartzako Jauregian.

Entrevista al ganador y a la ganadora de la beca Igartza Musika que ofrecerán un concierto el 2 de abril en Igartza.

- 1. ¿Qué ha supuesto para ti ganar esta Beca?**
- 2. ¿Cómo afrontas este próximo concierto?**

YANA KUCHEROVA - violinista



1. En primer lugar quiero dar las gracias al jurado por su elección y por haber confiado en mí. Con la Beca he podido costear mis estudios de este año yo en Musikene. Por tanto, ha sido una gran ayuda para mí y para mi madre.
2. Para un músico un concierto siempre es una alegría. Por eso estoy feliz de tener la oportunidad de tocar en este concierto y poder disfrutar de lo que hago y que hacer que la gente disfrute. Esta vez voy a interpretar la Suite de Bach nº6 y una obra contemporánea de Jazz. Espero que guste al público.

CESAREO MUÑOZ - violonchelista



1. En primer lugar ha sido muy importante para mí por el reconocimiento al trabajo realizado para el concurso-concierto. Es un impulso muy fuerte para seguir estudiando para proyectar e intentar conseguir nuevas metas. A nivel económico, sin duda, es un apoyo para poder ser independiente y seguir desarrollando mi trabajo.
2. Con mucha ilusión. Siempre es una oportunidad poder tocar un recital pero además en un emplazamiento como en el que será mucho más. Tengo muchas ganas de hacer disfrutar y he elegido un programa que creo que será una buena combinación entre profundidad y cercanía al público.

Goierri Urola Shorinji
Kempo Eskolak,
(GUSKE), 35 urte
daramatza
eskualdean kempo
eskolak ematen.



Shorinji Kempo, Bigarren Mundu Gerra amaieran, Japonian hedatutako arte martzial moderno da. Nakano Michiomik sortu zuen Japonian 1947. urtean, kultura tradizionalaren "ikasgaiak", "teknikak" eta "heziketa sistemak" herritarren artean zabaltzeko asmoz.



80ko hamarkadan heldu zen arte martzial hau Goierriara. Beasainen kirol kluba sortu zen eta harrezkero erreferentziazkoa izan da eskualdean. Egun, Beasainen bi entrenatzeko toki daude, bata Urbi-etxen eta bestea, Antzizar kiroldegian. Eskualdean, Ordizian, Lazkaon, Idiazabalen eta Zumarragan ere praktikatzen da Kempo eta aipatu herrietan kokatuak dauden gimnasioek osatzen dute GUSKE taldea.

Arte martzialak praktikatzen dituzten nazioarteko talde eta pertsonak biltzeko asmoz, IKA (International Kempo Association) elkarteak sortu zen eta GUSKE izan zen talde sortzaile eta bultzatzailetako bat.

35. urteurrenaren harira, aurten, International Kempo Association elkartearen nazioarteko mintegia Beasainen ospatuko da.



KEMPO ARTE MARTZIALAREN 35. URTEURRENA BEASAINEN



Para celebrar el 35. aniversario del Shorinji Kempo en nuestra comarca, Beasain acogerá los días 28, 29 y 30 de abril el Seminario Internacional de IKA (Asociación Internacional de Kempo). Participarán en este evento de talla internacional personas y grupos provenientes de diversos lugares del mundo que practican este arte marcial.

Desde Goierri Urola Shorinji Kenpo Eskola animan a la ciudadanía a sumarse a esta gran fiesta y celebración.



28 viernes

22:00 *Cena de recibimiento y confraternidad con quienes asistan al seminario.*

29 sábado

9:00 *Salida del hotel hacia el polideportivo Antzizar.*

9:30 *Presentación de los países que forman IKA.*

11:30 *Exhibición internacional con la participación de todas las personas de la asociación IKA.*

13:00 *Comida.*

15:30 – 19:00 *Continuación del seminario.*

21:00 *Cena especial con fiesta incluida.*

30 domingo

9:00 *Salida del hotel hacia el polideportivo Antzizar.*

9:30 *Seminario.*

13:00: *Comida.*

15:30 – 17:30: *Fin del seminario.*



APIRILAK 6

Bibliotekako irakurzaletasuna saritzea. Irakurzaleak sarituko dira.

APIRILAK 23

XXVII. Beasain Idazlehiaketako sari-ematea. Igartzako jauregian 12:00etan.

APIRILAK 24

Miren Agur Meaberen "Zer da maitasuna?" liburuaren analisia egingo du Asmubeko irakurle taldeak.

APIRILAK 28

Irakurle taldea. J.M. Coetzeeren Lotsaizuna. Udal Bibliotekan 17:30ean

Liburu trukerako gunearen inaugurazioa ,Udal Bibliotekan 17:00etan

Euskarazko liburu gomendatuen katalogoaren aurkezpena, Udal Bibliotekan 17:00etan.

MAIATZAK 6

Iker Markinez sukaldariaren liburuaren aurkezpena eta errezetaren bat sukaldatzea. Hileroko azokan. Loinazko San Martin plaza azpian.

MAIATZAK 9

Irakurketa erraza tailerra. Fernando Morilloren "Santiago bidearen misterioa". Udal bibliotekan.

MAIATZAK 13

Ipuin kontaketa, Galtzagorri elkartearen eskutik Igartzako jauregian, arratsaldeko 17:00etan. Ixabel Agirresarobe; Igartzako ondare kulturalen oinarritutako ipuin kontaketa saioa. 4-10 urte bitarteko haurrentzat.

MAIATZAK 19

Irakurle taldea. Irakurleakeliburutegiko euskal literaturaren irakurketa talde digitalarekin elkarlanean, Lourdes Oñederraren "Intemperies. Babes bila". Udal Bibliotekan 17:30ean.

DATUEKIN JOLASEAN

Azken 12 urteetan ibilgailuen kopuruak %55 egin du gora

Guztira, Beasainen, 6.352 auto eta mota guztietako 8.792 ibilgailu daude

466 aparkaleku berri sortu dira azken urteetan eta guztira 3138 aparkaleku daude

En los últimos 12 años ha aumentado en un 55% el número de vehículos.

En total hay 6.352 coches y 8.792 vehículos de todo tipo en Beasain.

Se han creado en los últimos años 466 nuevas plazas de aparcamiento, lo que hace un total de 3.198 plazas.

JAKINARAZPENAK NOTIFICACIONES

EGUTEGI FISKALA CALENDARIO FISCAL

ZERGA ETA TASAK IMPUESTOS Y TASAS	Kobrantza epea Período de cobro
Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica	2017.02.01 - 2017.03.31
Zabor bilketa Recogida de basuras	2017.03.01 - 2017.04.30
Azoka (2.hiruhilekoa) Mercado (2º trimestre)	2017.04.01 - 2017.05.31

*Helbideratutako ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira El cobro de los recibos domiciliados se realizará el último día del periodo voluntario.

LOTURA INTERESGARRIAK ENLACES DE INTERÉS



• **kzGunea** Apirileko ikastaroak | Cursos de abril
www.kzgunea.eus



• **Musika Eskola**
www.beasaingomusikaeskola.eus



• **Antzizar kiroldegia**
www.antzizar.net



• **Udal Euskaltegia**
www.udaleuskaltegiak.eus

Beasain ere korrikaren eta euskararen alde



Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016